

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Juanita Urkia Ugarte*

*Oñati,  
Gipuzkoa  
(1929-2023)*

Aurkibidea



## Biografia



Ugaztegi auzoko Erdikoetxe baserrian jaio zen, hamabi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Araotz auzoko Borjena baserrikoa. Araotzeko eskolara joan zen, sei urtetik zortzira (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Etxean batez ere umezaintzan jardun zuen, eta hamabost urterekin Oñatiko Olabarrieta auzoarekin mugan dagoen Satui baserrira (Legazpi) joan zen neskame. Han baserriko lan guztietan jardun zuen. Olabarrietako Kortabarri, Imitola eta Sustiabe baserrieekin egiten zituzten auzolanak Satui baserrikoek. Geroago Durangoko ikastetxe batean egon zen neskame. Bertan gaixotu eta hamar urtez gaixorik egon ondoren, erreuma eta tifusa sendatuta, Zahor lantegian jardun zuen lau urtez. Ondoren Garibai auzoko "Arriagakua" (Arriagakoa) baserrira joan zen neskame. Handik bertako nagusi alargundu berriarekin Bilbora joan zen neskame lanetan jarraitzeko. Bilbon egon zen jubilatuta zen arte.

## Zintak

### ONA-135

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-17
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-12-06*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com